

2019-2023 legeintzaldiko 3. buletina

2020KO UZTAILA

Uztailaren 12ko HAUTESKUNDEAK

BALORAZIOA

Zarauzko EH Bildutik eskerrak eman nahi dizkizuegu EH Bilduren eskaintza politikoaren alde bozkatu duzuen zarautzar guztiei.


Pandemia baten testuinguruan egin diren hauteskunde hauek, abstentzio handia eragin dute hiru probintzietako herritarren artean. Zarautzen ere nabarmen igo da abstentzioa: %4,93 puntu. Lastima!

EH Bildu izan da, abstentzioaren gorakada nabarmena egon arren, botoetan igo den alderdi bakarra. Eta Zarautzen ere **EH Bildun konfiantza jarri dugunak gero eta gehiago gara: zehazki 3.790** uztailaren 12ko hauteskundeetan.

2016ko hauteskunde autonomikoetan baino 270 boto gehiago lortu ditugu, nahiz eta 700 zarautzar gutxiago joan diren beraien boza ematera.

Alternatiba politiko erreala da EH Bildu. Gero eta gehiago gara, eta hau guztia egin ahal izateko egunero lanean jarraituko dugu. Mila esker!

Zarautz 2020-2016(Bozak)



MILA ESKER!

Alternatiba politiko
erreala da EH Bildu

Covid 19

Covid 19aren berri izan eta alarma egoera adierazi zenetik, elkarlanerako unea zela eta guztion iritziak eta ekarpenak lagun zezaketela sinetsita, krisi kabinete bat osatzeko eskaera egin genion Zarauzko udal gobernari.

Krisi kabinetea eratu zuen, bai, baina oposizioko kiderik gabe, eta bertan egon behar genuela esaterakoan, erabakiak hartzen diren guneetan gobernuko erantzukizunak dituenak soilik egon behar dutela erantzun zuten.

Edonola ere, zarauztar guztion ongizatea bermatzea denez gure kezka nagusia, krisi mahai horretan egon ez arren eta gobernuak elkarlanerako asmorik azaldu ez arren, gure ardurari helduz, Zarauzko EH Bilduko udal taldeak hainbat proposamen egin ditu, horretarako bozeramaile bilerak baliatuz.

Egoera hain aldakorra izanik, eskaerak unean uneko egoerara egokitu dira, baina beti, bizitza duinak erdigunean jarri eta erabakiak beste alderdiekin eta herritarrekin kontatuz hartzeko eskatu izan dugu.

Udal Gobernuaren orokorrean izaten ari den jarrera eta jokaera nolakoak diren ikusita, sorpresa handirik ez da izan egia esan, baina benetan, elkarlanerako aukera paregabea galdu dugula eta galtzen ari garela uste dugu.

Jarduera ekonomikoei dirulaguntzak

Ez ziren guk nahi genituen laguntzak eta guk nahi baino askoz beranduago iritsi ziren, baina momentuko egoera larri asko hobetzen lagunduko zutela uste dugu.



Krisi honek familiei, merkataritza establezimendu txikiei eta ostalariei sortuko dizkien kalte ekonomikoak handiak izango direla hasiera-hasieratik ikusi genuen. Udal gobernuak deitutako lehenengo bozeramaile bileran, martxoaren 17an, jada horientzako dirulaguntzak abian jartzea eskatu genuen EH Bilduko udal taldeak. Ez zuen horrela ikusi Zarauzko Udal Gobernuak (edo gobernuko EAJren aldeak behintzat!). Suspertzea eta beste laguntza batzuk biltzen zituen plan bat aurkeztu zuten apirilaren bukaeran, baina ez zuten bertan jasotzen ostalarientzako, merkatarientzako eta negozio txikietarako dirulaguntza zuzenik.

Azkenean, 2020ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek kaltetutako jarduera ekonomikoei dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak onartu zituen Zarauzko Udalak.

Laguntza horien alde bozkatu aurretik, bilera batzuk egiteko aukera izan genuen Udal Gobernuarekin. Hobekuntza batzuk proposatu genituen eta guretzat garrantzitsuak ziren batzuk aurrera atera eta oinarrietan txertatu ziren. Ez ziren guk nahi genituen laguntzak eta guk nahi baino askoz beranduago iritsi ziren, baina epe luzeagoari begira egin beharreko lanketaz gain, momentuko egoera larri batzuk hobetzen lagunduko zutela uste dugu.

Boluntario sareak

Udalak bazter utzi zituen, haienganako indiferentzia eta mespretxua adieraziz.

Beste hainbat herrietan bezala, Zarautzen ere hasieratik ari ziren sortzen boluntarioen sareak auzokideen arteko zaintza bultzatzeko, musukoak egiteko, hezkuntza alorrean laguntzeko... eta Udalak bazter utzi zituen, haienganako indiferentzia eta mespretxua adieraziz.

Segurtasunaren izenean herri baten indargunea den komunitatea gutxietsiz, Udalak berak ahalguztiduna izango balitz bezala jokatu zuen.

Hala, herriko adinekoei eta beharra dutenei laguntzeko sarea babesteko eta koordinatzeko eskatzean, kutsatzeen beldur zirela erantzun zuten eta ezezkoa eman (herritarrak zentzugabe batzuk eta neurriak hartzeko gai ez balira bezala); horrez gain, adin batetik aurrerako guztiei beren beharrianak detektatzeko telefono deiak egiteko sare hau baliatzeko proposatu zitzairen, baina Udala hori egiteko nahikoa zela erantzun zuten (milaka dei modu azkarrean egiteko aukera baztertuz); azkenik, musukoak egiteko jostun sarea sortu eta Udalari laguntza eskatzean ere, homologatuta ez zeudela argudiatu zuten, eta ez zieten lagundu (prebentzio neurri guztiak hartzen lagundu beharrean).

Gure inguruko hainbat herrietan izan genituen eredu oso interesgarriak: Zumaian Udalak koordinatutako jostun sarea, Orioko boluntarioen bidez egindako 70 urtetik gorako guztiei egindako deiak, eta inguruan ditugun makina bat adibide zoragarri.

Horrelakorik gure herrian ezin egin, ordea.



Aurrekontuen egokitzea

Uztailaren 28an egindako osoko bilkuran gastuak nola kontrolatu eta aurrekontuak nola egokitu eztabaidatu eta erabaki zen.

Egoera honen ondorioetako bat ekonomikoa ere bada, alde batetik zergen bitartez eta bestetik aldunditik jasotzen dituen dirusarrerara nabarmen murriztuko delako Udalarentzat. Horregatik, uztailaren 28an egindako plenoan gastuak nola kontrolatu eta aurrekontuak nola egokitu eztabaidatu eta erabaki zen.

Udal Gobernuaren proposamenak partida asko murrizten ditu. Gehiengoak guztiz logikoak, bete ezin izan direnak edo geldirik egotearen ondorioz eratorri direnak baitira. Baina beste batzuk, erabaki politikoak dira, eta horietako batzuekin ez gara ados egon.

Gure iritziz, kendu dituzten partida batzuei eutsi egin beharko litzaieke: hala nola etxebizitza alokatzeko dirulaguntzak (bi urtez jarraian EH Bildurekin adostu eta alde bakarreko erabakiz bertan behera utzitakoak), Plan Estrategikoa (EAJk aldaketa askorako baldintza edo oinarri jartzen duena), Orokietako patioa birgaitzeko edota bizikidetzako ikerketarako dena.

Zarautzek baditu horiek guztiak nondik ordaindu: R14 partzelaren salmentatik ateratakotik edota EAJk garbigunera bideratu nahi duen inbertsiotik (eskualde mailan eztabaidan dago).

Horrez gain, mantendu dituzten hainbat partida aurrera ateratzeko unea ez dela uste dugu, herriak orain dituen lehentasunen artean ez daudela sinetsita: Arboretuma Abendañon, autokarabana aparkalekua (jada egina dagoena) eta musika eskolako konponketa, adibidez.


Bukatzeko, gogoratu nahi dugu maiatzaren 16an Udal Gobernuak egindako adierazpen batzuk: “Zarauzko Udalak baditu baliabideak COVID-19 pandemiaren ondorioei aurre egiteko: 2019 ekitaldiko likidazioaren ondoren, ia 8 milioi euroko soberakina du Zarauzko Udalak”. Denon onerako, horrela izatea espero dugu!

Hirigintza

Gauden egoera honetan, Covid-19aren krisiaren erdian, oraindik egoera honetatik ateratzeko zer beharko dugun ikusteko dagoenean... Udal Gobernu honen kezka nagusia Hirigintza da, tamalez.

Tren geltoki eta pasabide berria

Maiatzaren 13an, ezohiko osoko bilkura egin zen Zarauzko Udalean. Covid-19aren ondorioz deitutako alarma egoera hasi zenetik lehenengoa. Ezohiko pleno horretan Euskal Trenbide Sarearen eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena eta tren-geltoki berriaren eta trenbide azpiko pasabidearen eraikuntza finantzatzeko akordioak proposatu ziren.



Lehenik, Covid-19aren krisiaren erdian, krisi honetatik ahalik eta gutxien kaltetuta ateratzeko nola egingo genuen ez genekinean, horrelako proiektu bat onartzeko ezohiko pleno bat deitzea onartezina iruditzen zaigu. Badakigu, krisi honek ez duela gainerako guztia geratu behar, eta ahal den neurrian aurrera egin behar dela, baina lehentasuna herritarrak izanik, orain ez da une egokia gai honi buruzko erabakiak hartzeko.

Proiektuan bertan oinarrituta ere, badira gustatzen ez zaizkigun kontu batzuk :

1.- 2009an, Zarauzko herria bi zatitan banatzen duen trenbidea lurperatzeko trazatuaren azterlana egiteko hitzarmena sinatu zen ETSrekin. Hasiera horretan, EAJ-PNVrentzat ere lehentasun estrategikoa izan zen, baina azken 5 urte hauetan Udal Gobernuak alde batera utzi du erabat.

Orain onartutako proiektu honek, gaur egungo trenbide trazatuari egonkortasuna emango diola iruditzen zaigu. Guk azterlana bukatu egin behar dela uste dugu, ez dela etsi behar. Etorkizuneko Zarautz amestean, zatitzen duen trenbiderik gabekoa irudikatu nahi dugu. Eta orain trenbidea lurperatzeko garai egokia ez dela uste badugu ere, proiektua ez da baztertu behar, ezta etorkizunean baldintzatuko duen ezer egin behar ere; hala, etorkizunean proiektua gauzatzeko aukera egokiagoa dagoenerako, Zarauzko herriak prest egon behar duela uste dugu.

Horregatik, Udal Gobernu honek ETSrekin sinatutako trenbidearen trazatuaren azterlanaren hitzarmenarekin aurrera jarraituko duen jakin nahi izan dugu. Erantzun garbirik ez, ordea.

2.- Dudarik gabe, pasabide honek herriko mugikortasunean aldaketak eragingo ditu, eta ez da egin mugikortasun planik. Eta gainera Lapurdi eta Zigorria kaleen arteko joan-etorriak oztopatu egiten dituela iruditzen zaigu. Hauek guztiak argitu arte gai honi buruzko erabakiak hartzea ez zaigu ondo iruditzen.

3.- Jakin badakigu tren geltokiaren gaur egungo eraikina, 1995ean altxatu zela, eta ez dela jatorrizko eraikina, ondare arkitektonikoaren ikuspuntutik ez duela interesik. Hala ere, zalantzak sortzen dizkigu eraitsi eta berria egin behar horrek.

Gainera, horrelako proiektu bat onartu aurretik herritarren parte-hartze prozesu bat ireki beharko litzatekeela uste dugu; eta kasu honetan, proiektuari buruz duten iritzia emateko aukerarik ez izateaz gain, proiektuaren gaineko informaziorik ere ez dute jaso.

Hauek guztiak esanda, gaur egun eta epe laburrari begiratuta, Zarauzko Iparra eta Hegoa lotuko dituen pasabideari alde positiboak ikustea erraza da, eta guk ere ikusten dizkiogu; baina pauso hori ematerako, aurrez aipatutako puntu horietan gehiago sakondu behar dela uste dugu. Horregatik, hitzarmenaren sinadura atzeratu eta bozketa bertan behera lagatzeko eskaera egin genuen batzarrean, eta eskaera hori aurrera atera ez zenean, gure botoa abstentzioa izan zen, faltan botatzen ditugun puntuak aztertu arte.

Talaimendiko etxea

Bilduk ez zion ur-horniduraren baimenik eman Amezti eraikinari, Xabier Txurruka, alkateak, kontrakoa iradoki bazuen ere.



Martxoaren 12an, Podemos-Equo-Berdeak taldeak honako hau eskatu zion Udalari: 2015ean Xabier Txurrukak, Zarauzko alkateak, dekretuz Amezti eraikinari emandako ur-hornidura baimena baliogabetzea. Ekainaren 30ean, tramite horrekin aurrera egiteko edo ez egiteko erabakia hartzera eraman zen osoko bilkurara.

Xabier Txurruka alkateak 2015ean, gaia auzitan zegoenean eta gizartean kezka handia sortua zuenean, eman zuen ur-horniduraren baimena. Osoko bilkuran esan genuen, babes bereziko lur eremu gisa kalifikatuta dagoen ingurune horretako urbanizazioari lotutako baimenak horrelako egoera batean ematea ez zaigula batere egokia iruditzen. Gure iritziz, zuhurtasunez jokatu eta gauzak argitu arte, Udalak erabakirik ez zuen hartu behar.

Hori izan zen, hain zuzen ere, EH Bilduk bere agintaldian egin zuena, Xabier Txurruka alkateak kontrakoa iradoki bazuen ere ekaineko plenoan. Ur-horniduraren baimena emateko Dekretu “proposamena” sinatu zuen EH Bilduko zinegotziak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Aiako Udalaren txostenak eskatu eta jaso bitartean prozedurak hala behartzen zuelako. Baina Foru Aldundiko txostenak jaso zituenean, eta horiek eraikinaren inguruko zalantza asko sortzen zituela ikustean, proposamen hori aurrera ez eramatea eta baimena ez ematea erabaki zuen. Horregatik ez dago Juan Luis Illarramendik sinatutako baimen dekreturik, gaur egungo alkatea azken plenoan gauzak nahasten saiatu bazen ere.

2018ko abenduko osoko bilkuran, orain dela urte eta erdi, Mikel Goenagak, EH Bilduren izenean udal honek emandako baimenak berrikustea eta etetea beharrezkoa zela esan zuen galdera-eskariaren puntuan. Ez dugu iritziz aldatu. Horregatik, Podemos-Equo-Berdeak egin duen eskaera tramitera eraman beharko litzatekeela adierazi eta eskaera atzera botatzearen kontra bozkatu genuen ekaineko osoko bilkuran.

Hala ere, EAJ-PNVren eta PSEren aldeko botoekin, Podemos- Equo-Berdeak taldeak egindako eskaera atzera bota zen, eta ur-horniduraren baimena atzera botatzeko tramiterik hasi ere ez du egingo Zarauzko Udalak.

Salberdin

EH Bilduk Salberdineko proiektuak ahalik eta azkarren aurrera egitea nahi du, baina gauzak ondo eginez, jauntxokeriarik gabe.

Salberdineko obrak aurrera doaz, mantso mantso, baina badoaz.

Lur kutsatuak behar bezala garbitzeak asko ari da atzeratzen dena eta erabilitako sistemak ongi funtzionatu badu ere, ez da lortu guztiz garbitzea. Lurren garbiketa osatzeko, eraikin guztiak inguratuko dituen lur-azpiko kajo bat egitea erabaki du Salberdineko juntak: horma-pantaila.

Ekaineko plenoko gai-zerrendan zegoen puntu hau, horma-pantaila hori egiteko eta horren finantzatzeko moduaren erabakia, alegia. Xabier Txurruka alkateak, udalbatzari eta bere eskumenari muzin egin eta udala berea balitz bezala jokatu du. Horma-pantaila hori egiten hasi ziren erabaki hori plenora eraman zuenerako.

Osoko bilkuran bertan informazioa eskatu eta erantzunik eman ez zuenez, erregistro formal bat egin genuen honako hau galdetuz: alde batetik, noiztik ari diren lan horiek egiten Salberdinen, eta bestetik, nork eman zuen obra horiek hasteko baimena plenoan erabakia hartu aurretik.

EH Bilduk Salberdineko proiektuak ahalik eta azkarren aurrera egitea nahi du, baina gauzak ondo eginez, jauntxokeriarik gabe.



Mugikortasuna

EH Bilduren ustez, Zarautzen Mugikortasun plan bat egitea presazkoa da, are gehiago udal gobernua pixkanaka eta zatika gai honi dagozkion aldaketak erabakitzen ari denean.



Lapurdi kalea

EH Bilduk EAJren koherentzia falta azpimarratu du.

Zarauzko udal gobernuak Lapurdi kalea norazko bakarreko kale bihurtu zuen 100 aparkaleku lortzeko maiatzaren bukaeran. EH Bildu gobernuan zegoenean proiektu hori bera proposatu zuen 2012. urtearen hasieran; une hartan, EAJko eta PSEko taldeak neurriaren kontra azaldu ziren eta “informazio” kanpaina bat abiarazi zuten haren gainean.

EH Bilduren gobernuak, bizilagun askoren iritzi eta kezka entzun ondoren, erabaki zuen Lapurdi kalean egin nahi zuen aldaketa Kortazar eremura bakarrik mugatzea, eta proiektuaren gainerako guztia etorkizuneko Mugikortasun Planak zehaztuko zuenerako uztea. Plan horren lanketak legegintzaldi horren amaieran hasi bazen ere- ez du jarraipenik izan, ordea, EAJren hurrengo legegintzaldietan, nahiz eta EH Bilduk hori egiteko eskatu izan duen eta ukaezina iruditu plana beharrezkoa dela.

EAJren koherentziarik gabeko jarrera nabarmena izan da, gobernuan dagoenean eta oposizioan zegoenean desberdin jokatu baitu.

Bizikleta bideak

Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia kontuan hartu gabe bizikleta ibilbideetan aldaketak, mozketak eta etenak egiten ari da Udal Gobernua

Bizikleta hiriko bidean txertatzeko prozesua azken hamarkadan zehar garatu izan da, hirigintzaren eta mugikortasunaren plangintzarako hainbat dokumenturen bidez. Prozesuaren azken katebegia Zarauzko Bizikleta Bide eta Azpiegituren Plan Bereziaren onarpena izan zen. 2015eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen; izenak berak dioen moduan, hirigintzako araudiaren parte da eta, horrenbestez, derrigor betetzekoa.

Tamalez, Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia kontuan hartu gabe, hainbat bizikleta-bidetan mantentze lanik ez da egin, eta larriagoa dena, bizikleta ibilbideek aldaketak, mozketak eta etenak izan dituzte, Plan Bereziari inolako aldaketa proposamen egin gabe.

EAJ-PSEren Udal Gobernuak, berriz ere, muzin egin die arauak agintzen duten prozedurei, Udalbatzarrak onartutako plangintza -derrigor bete beharrekoa- baztertuz.

Horregatik, EH Bilduren udal taldeak mozio bat aurkeztu genuen uztailaren 28ko osoko bilkuran, honako eskaera hauek eginez:

- Udalbatzar honek onartutako Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia errespetatu eta bete dezala.
- Eginda zeuden Bizikleta Bide Sareko ibilbideak bere osotasunean berreskura ditzala urtea amaitu aurretik.
- Salberdinen egingo den trenaren azpibideko proiektuan txerta dezala bizikleta ibilbideko 5. ardatza egoki gauzatzeko irtenbidea.
- Salberdinen eta Gaztainperen arteko lotura berria kontuan hartzea, eta Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia osatu dadila.

EH Bilduren saretze prosezua

Covid 19ak eragindako etenaldia medio, gure saretze prozesua ere mantsotu egin da pixka bat. Jasotako informazio guztia antolatuta daukagu eta lan-taldeen bilerak egiteko dena prest dago. Hala ere, egoera hobetzeko eta bilera horiek modu lasaiagoan egiteko zain egongo gara. Gauzak nola doazen ikusi behar da, baina ea irailean abian jartzeko moduan gauden.

Prozesuan parte hartu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu berriz ere. Ez gaude zuetaz ahaztuta!

Udaleko gure lanak eta herrigintzak lotuta egon behar dutela sinetsita, zuekin, herritarrekin, harreman zuzena izaten jarraitu nahi dugu EHBilduko Udal Taldekideok. Zure iritzia edo kezka helarazi, edota edozein proposamen edo ekarpen egin nahi baduzu, gure emailera idatzi edo telefonoz deitzera animatzen zaitugu. Guk oso gustora hartuko dugu.